

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

3639

155/2021 DEKRETUA, ekainaren 22koa, zeinaren bidez aparteko neurriak onartzen baitira 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. tituluan autonomoentzat eta enpresentzat aurreikusita dauden zuzeneko laguntzak kudeatzeko, izapidetzeko eta ekonomikoki kontrolatzeko (5/2021 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena).

COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurrien martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren arabera, autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzen COVID lerroa sortu da, Espainiako Gobernuaren finantzaketari esker, 7.000 milioi euroko zuzkidura globalarekin. Lerroaren helburua da sektore pribatuaren kaudimena bultzatzea, enpresei eta autonomoei helburu jakin baterako zuzeneko laguntzak emanez. Erregulazio hori osatzeko, Ogasun Ministerioak apirilaren 12ko HAC/348/2021 Agindua eman zuen, zeinaren bidez laguntzak esleitzeko irizpideak ezarri baitziren. Ondoren, COVID-19ak eragindako pandemiak kaltetu dituen enpresei eta autonomoei laguntzeko neurri osagarriak hartzen dituen apirilaren 20ko 6/2021 Errege Lege-dekretua onartu zen.

Martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio bere lurraldean kokatuta dauden hartzaileentzako zuzeneko laguntzak iragartzea, eskaerak izapidetzea, kudeatzea eta ebaztea, laguntzak ordaintzea, ordaindu aurretik eta ondoren egin beharreko kontrolak egitea eta, oro har, baliabideak ongi erabiltzen direla bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea.

Ez dagoenez ezarrita norik duen eskumen-gaikuntza deialdi horren arau erregulatzailerik onartzeko eta laguntzak emateko, Gobernu Kontseiluak erabaki beharko du zein den organo eskuduna jarduketa horiek egiteko. Ondorio horietarako, kontuan izanik askotarikoak izan daitezkeela laguntzen hartzaileak (pertsona zein entitate), bat etorri Jaurleari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.2 artikularekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.2 artikularen ondorioetarako (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori), erabaki da egokia eta komenigarria dela Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari esleitzea 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. tituluan aurreikusita dauden zuzeneko laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzeko eskumena (5/2021 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena). Gainera, laguntzak koiunturazkoak eta apartekoak direnez, berehala aplikatzekoak eta atzeratu ezinak, egintza bakar baten bidez onartu behar dira bai zuzeneko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta bai laguntza-deialdia, zeren eta izapide administratiboen epeak laburtu nahi baitira eta laguntzak ahalik eta azkarren eman.

Bestalde, zuzeneko laguntza horien deialdia epe laburrean izapidetu eta ebatzi behar denez, zeren eta ezin izango baita laguntzarik eman 2021eko abenduaren 31 baino beranduago –Ogasun Ministerioari itzuli beharko zaio exekutatu gabeko eta konprometitu gabeko saldoa– eta zuzeneko laguntza horiek bereziak eta salbuespenezkoak direnez, nahitaezkoa da laguntzak presaz izapidetzea, hartzaileengana berehala iritsi eta eraginkorrak izan daitezen.

Orobat, ikusita laguntzei lotutako kredituen bolumena handia dela, pertsona eta entitate askok aurkeztuko dutela eskaera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak denbora gutxi duela eskaerak kudeatzeko, ezinbestekoa da berriazko neurriak abian jartzea, laguntzen eskaerak

errazago eta bizkorrago izapidetu eta ebatzi ahal izateko, betiere aplikatu behar diren lege-xedapenak beteko direla bermatuz.

Horrenbestez, kontuan hartuta laguntzen bidez aparteko egoera bati erantzun nahi zaiola eta onuradun posible askok aurkeztuko dutela eskaera, komeni da aparteko neurriak ezartzea, bai administrazioa bai aurrekontu-kudeaketa sinplifikatze aldera, eta neurriok laguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileetan txertatzea.

Horren harira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikulua araberak, erabaki da beharrezkoa dela laguntzak presaz eta bitarteko elektronikoen bidez soilik izapidetzea, oinarri hartuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikulua eta Administrazio Elektronikoa-oren otsailaren 21eko 21/2021 Dekretuaren 28. artikulua.

Horrez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 22. eta 23. artikuluen ondorioetarako (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori), xedatzen da laguntzen ondoriozko gastu-espedienteak ez direla aurrez fiskalizatuko eta ordaintzeko betebeharrak onartzeko frogagiriak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko direla.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.8 artikulua ondorioetarako (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori), komeni da zuzeneko laguntzak jasotzen dituzten pertsonak eta entitateak salbuetsita egotea justifikazioa aurkeztu aurretik ordainketa aurreratuen ondoriozko bermea eratu behar izatetik, aintzat hartuta laguntzen zenbatekoa, xedea eta aparteko izaera.

Azkenik, erabaki da martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuaren aldaketa sartu behar dela xedapen honetan (106/2021 Dekretua, zeinaren bidez enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2021eko programa garatzen baita), 2021eko ekainaren 30era arte luzatu nahi baita martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuaren babesean formalizatutako maileguen nobazio-eskaerak formalizatzeko epea.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, lehendakariak aurrez onetsita, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko ekainaren 22an eginiko bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Organo eskuduna.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua izango da organo eskuduna 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. tituluaren aurreikusita dauden zuzeneko laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzeko (5/2021 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena).

2. artikulua.– Administrazioa sinplifikatzea.

1.– Xedapen honen 1. artikuluan aurreikusita dauden zuzeneko laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzeko eta laguntza horiek emateko administrazio-prozedurak presaz izapidetuko dira, eta, beraz, prozedura arrunterako ezarritako epeak erdira murriztuko dira, eskaerak eta errekursoak aurkezteko epeak izan ezik.

2.– Eskaerak eta, hala badagokio, horiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, bai eta laguntza horiekin lotutako gainerako izapideak ere, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira soilik.

3. artikulua.– Kontrol ekonomiko-fiskala.

1. artikuluan aurreikusita dauden zuzeneko laguntzen kontrol ekonomiko-fiskala salbuespenezkoa izango da, eta zehaztapen hauen arabera egingo da:

a) Laguntzen ondoriozko gastu-espeditenteak ez dira aurrez fiskalizatuko.

b) Ordaintzeko betebeharrak onartzeko frogagiriak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko dira, bat etorri zuzeneko laguntzak emateko deialdirako onartzen diren oinarri arautzaileek xedatutakoarekin eta, hala badagokio, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ekitaldi hori baino lehen ezarritako jarraibideekin.

4. artikulua.– Pertsona eta entitate onuradunek bete behar duten berme-araubidea.

1. artikuluan aurreikusita dauden zuzeneko laguntzak jasotzen dituzten pertsonak eta entitateak salbuetsita egongo dira justifikazioa aurkeztu aurretik ordainketa aurreratuaren ondoriozko bermea eratu behar izatetik, aintzat hartuta laguntzen zenbatekoa, xedea eta aparteko izaera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Lehenengoa.– Martxoaren 9ko 106/2021 Dekretua aldatzea, zeinaren bidez enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2021eko programa garatzen baita.

Martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 8. paragrafoa aldatzen da (dekretu horrek enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2021eko programa garatzen du), eta honela idatzita geratzen:

«8.– Eragiketen nobazio-eskaerak 2021eko apirilaren 15a baino lehen egin behar dira, eta 2021eko ekainaren 30a baino lehen formalizatu».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Erregelamendu bidezko garapena.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.